

IRAUPEN  
LUZEKO ZAINKETAK  
PERTSONALIZATZEKO  
JARDUNBIDE EGOKIEN  
AINTZATESPENAK



DIRUAREN KUDEAKETAN GAITZEA  
BIZITZA AUTONOMO ETA ARDURATSU  
BATERAKO

**SOPUERTAKO ZURE-ETXEA EGOITZA  
ERAKUNDE KUDEATZAILEA: COOPERATIVA GSR**

## A ARDATZA: ARRETA- ETA BIZITZA-PLANA

### A) JARDUNBIDE EGOKIA GARATZEA:

Sopuertako GSR Zure - Etxea egoitza, jatorrian eta urte batzuetan, adinekoentzako egoitza izan da. Duela urte batzuk Bizkaiko Foru Aldundiarekin itundutako mendekotasun-plazetako batzuk osasun mentaleko plaza bihurtu ziren, eta, gaur egun, azken horiek nagusi bihurtu dira gehiengo dira zentroan. Urte asko adinekoen ikuspegitik lan egiten daramatzan zentroa gara, eta une jakin batean, pandemiaren erdian, beste arazo eta nahasmen batzuk dituzten pertsonekin egiten dugun esku-hartzera egokitzen joan behar izan genuen, beste autonomia funtzional eta erabakitzaile maila bat duten pertsonekin, babesean eta osasunean oso finkatuta dagoen zaintzari buruzko oinarritzko hezkuntzarekin. Horrek guztiak aldaketak ekarri ditu, batez ere zaintzari begira eta, bereziki, artatzen ditugun pertsonen autodeterminazio-gaitasunari begira; egunero egoiliarrek egokitzen eta estrategiak pentsatzen laguntzen digute, hemen bizi diren pertsona guztiek ahalik eta ondoen bizi daitezen, bizitzea merezi duten moduan.

Esan behar dugu gaur egun artatzen ditugun pertsona gehienek oso bizimodu zaila izan dutela duela urte askotatik, euren gaixotasun mentalek eragiten dizkieten gorabeherak markatuta beti, baina baita gaixotasun mental bat pairatzeak gaur egun duen estigma sozialarekin ere. Era berean, familia oso kaltetuak, oso nekatuak eta etsiak aurkitzen ditugu, eta, zainketan urte asko eman ondoren eta askotan etengabeko gorabeherak izan ondoren, batzuetan prebentzioan eta babesean oinarritutako ikuspegitik zaindu behar ditugunak, trebakuntzan eta laguntzan baino gehiago, eta askotan eurekiko neurri murritzaleagoak eskatzen dizkigutenak.

Gai hauek guztiak maneiatzea ez da lan erraza, eta egunero aurre egin beharreko erronka da, pertsona lehenesten duen zainketa-eredu baterantz aurrera egingez; eredu horretan artatzen dugun pertsona bakoitzak bere bizi-historia du, eta patologia mentala izan arren, instituzionalizatuta egon behar izan arren, askotan beren borondatearen aurka, muga pertsonalerako neurriak eduki arren, merezi duen bizitza izan dezaten laguntzen dugu. Eta testuinguru horretan agertzen da gure jardunbide egokien proposamena.

Osasun mentaleko plazan artatzen ditugun pertsona gehienek laguntza judizialeko neurriak dituzte eta Gaikuntza erakunde publikoaren tutoretzapean daude, asko eta asko une hauetan oraindik ere aztertzen ari diren tutoretza globalekin. Pertsona hauetariko asko legezko kuradoretza-egoera horretan daude, eta euren gaixotasuna dela eta ez dute jakin euren bizitzako zenbait alderdi garrantzitsu behar bezala kudeatzen, hala nola dirua edo euren burua zaintzea. Egoiliar horien ondasunen kudeaketari dagokionez, gehienak Gaikuntzak babesten ditu, baita zentroak ere, diruaren eguneroko kudeaketan, eta gehienek gastu pertsonaletarako esleitutako "paga" bat dute.

DIRUAREN KUDEAKETAN GAITZEA BIZITZA AUTONOMO  
ETA ARDURATSU BATERAKO**SOPUERTAKO ZURE-ETXEA EGOITZA**  
**ERAKUNDE KUDEATZAILEA: COOPERATIVA GSR**

“Paga hau” duela hilabete batzuk arte Gaikuntza erakundearen bidez kudeatzen zen, eta berak zegokion esleipena adierazten zigun, eta zentrotik pertsona bakoitzari behar zuen moduan ematen genion dirua, bere kasuistika pertsonalak kontuan hartuta; egunero edo astero, diru hori kudeatzeko gaitasun espezifikoaren arabera eta beti interesdunekin adostuta.

Sistema hau, nahiz eta zentrotik hainbeste diru edukitzeak eta horren kontrol zorrotza eraman behar izateak erantzukizun handia izan, neurri erosoak eta segurua zen bai gure kudeaketarako, bai egoiliarrentzat ere, horrela euren bizitzaren zati horretan ez baitziren “erantzule” egiten. Ohiko sistema zen, halaber, zentro gehienetan ere, eta ondo funtzionatzen zuen, nahiz eta askotan egoiliarrengandik euren duintasunean oso mugatuta sentitzen zirela entzuten genuen; pentsa dezagun gehienek ia bizitza erdia daramatela instituzionalizazio partzialean eta gero erabateko instituzionalizazioan, eta egunero murrizketa ugari bizi dituztela, beharrezkoak izan arren, euren hitzetan “ezberdin” edo “arauz kanpo” sentiarazten dituztenak.

Hori guztia kontua hartuta Gaikuntzarekin batera eskaintzen ari ginen laguntza-neurri hori auto-eztabaidatzen hasi ginen. Gure antolakuntzarentzat erosoak zen, baina egoiliarrentzat ona ote zen galdetzen genion geure buruari. Alde batetik, saiatzen ginen arduratsuak eta autonomoak izan zitezen euren bizitzarekin, ohiturei, jarduera esanguratsuei eta abarri dagokienez, baina sentitzen genuen ez geniola benetan laguntzarik eskaintzen pertsonok geure bizitzaren gaineko kontrol-sentsazioa izan dezagun funtsezkoa den alderdi bat gaitzeko, hala nola diruaren kudeaketarena. Aldi berean, zaila egiten zitzaigun haiek hornitzeko eta euren bizitzan ahalduentzeko moduko irtenbide bat aurkitzen saiatzea, pertsona bakoitzak diruaren kudeaketari dagokionez dituen zailtasunak zein diren jakinda. Era berean, deliberazio-prozesu horretan konturatzen ginen autonomiaren printzipio etikoak, kasu askotan, talka egiten zuela ongintzaren eta gaizki egitearen printzipioarekin, jakin bagenekielako egoiliarretako askok bizi-ohitura oso finkatuak dituztela, oso identitarioak, baina batzuetan ez oso egokiak osasunaren ikuspegitik.

Zaintzako agenteak (zentroko talde teknikoak, laguntzaileak eta legezko kuradoreak) inplikaturik egon garen eztabaida-prozesu horretan guztian, deliberazio hori egoiliar bakoitzarekin ere egin da, haien sentimendua, beren buruaz duten pertzepzioa eta gainerakoek beraiei buruz duten pertzepzioa aztertuz, albo batera utzi gabe euren zaletasunak, itxaropenak eta bizi-irrikak, baina baita zailtasunak ere, eta azken finean ekintza-bide batera iritsi ginen, oraindik ere arriskuetatik babesten zituenak baina autonomia handiagoa eskainiz, euren buruaren erantzule egiten zituena eta euren bizitzaren nolabaiteko kontrola “itzultzen” ziena.

Kasu bakoitza baloratu genuen eta 13 pertsonak euren kreditu-txartela izatea proposatu zen, eta PIRR planaren barruan haiekin kudeatzeko modua adostea. Horrela ez dute “paga eskatu” behar, baizik eta euren dirua ateratzeaz eta laguntzekin antolatzeaz arduratu behar dute, pertsona bakoitzak bere dirua kudeatzeko behar duena, zentroko taldearekin adostutakoa. Azken batean, gure ustez, pertsonen bizitzaren zentzuan sinplea baina garrantzitsua den neurri honekin, jasotzen eta etsi egiten duten “subjektu pasibo” izatetik, euren bizitzaren kontrolaren zati batean eragile aktibo izatera igaro dira. Jada ez dira onuradunak, euren bizitza propioen aktibo baino.

DIRUAREN KUDEAKETAN GAITZEA BIZITZA AUTONOMO  
ETA ARDURATSU BATERAKO**SOPUERTAKO ZURE-ETXEA EGOITZA**  
ERAKUNDE KUDEATZAILEA: COOPERATIVA GSR

## EMAITZAK ETA ERAGINA

Bi hilabete gutxi dira diruaren kudeaketan aldaketa horrek egoiliarrentzat eta zentroarentzat izan duen eraginaren ebaluazio ona eta egokia egiteko, baina hasierako eragina oso modu positiboan ebaluatzen duten datuak baditugu. Epe luzeko jarraipena egiten jarraitu beharko dugu.

Bi hilabete hauetako gure bizipen-esperientziaz baiezta dezakegu 13 pertsonekin ondo funtzionatzen ari dela, nahiz eta kasu batzuetan aldatzen joan behar izan dugun, beti eurekin batera, adibidez, dirua ateratzeko maiztasuna edo gero egunerokoan nola kudeatzen duten. Gure ustez, jarraibideak, pertsonen bizitzaz ari garenean, aldakorrek dira eta eguneroko errealitatera egokitzen joan behar dute; horrek, agian, lan gehiago edo hobeto esanda, beste modu batera antolatzea esan nahi du, baina Zure Etxean begirada aldaketa horrek merezi duela uste dugu.

Inkesta txiki eta erraz bat egin da parte hartu duten pertsonekin (BAI edo EZ erantzun behar diren galderekin), banaka, eta zentrotik kanpoko profesional inkestatzaile batekin, GSRko Etika Batzordeko kideetakoa dena. Hona hemen datuak:

### 1. galdera: Zure iritziz autonomia-gaitasun handiagoa duzu kreditu-txartela duzunik?

% 100ek baietz erantzun dute.

Galdera honen erantzunean egoiliarretako batek, adibidez, esan du “Jada ez dut ilararik egin behar egunean 2 euro eskatzeko. Ume baten moduan eta barregarri sentitzen nintzen”.

### 2. galdera: Neurri egokia iruditzen al zaizu zuk duela bi hilabetetik zure dirua atera ahal izatea?

Pertsonen % 92k baietz erantzun dute.

Bi kasutan, zehazki, neurria ondo iruditzen zaien arren, onartzen dute segurtasun handiagoa izango luketela euren buruarekiko lagunduak izango balira.

### 3. galdera: Ondo deritzozu egoitzak dirua kudeatzeko laguntzak eskaintzeari?

% 100ek baietz erantzun du.

Erantzunen ehuneko horrek harritu egin gintuen hasieran; izan ere, egoiliarren ardura edo gaizki-sentitzeetako asko ondasun guztiak eskuratzeko aukerarik ez izateak eragiten ditu, eta, askotan, laguntza emateaz arduratzen diren pertsonen egozten zaie errua. Baina inkestan zehar egindako iruzkinen irakurketan konturatu gara egoiliar batzuek, beste batzuek baino neurri handiagoan, euren zailtasunez ohartzen direla, eta orain, neurri berriaren ondoren, zentroaren babesa ez dutela murrizketatzat hartzen, baizik eta euren segurtasunerako laguntzat. Pertzepzio-aldaketa hori oso garrantzitsua iruditzen zaigu.

### 4. galdera: Kreditu-txartela duzunik zure diruaren gaineko kontrol handiagoa sentitzen duzu?

Hemen % 96k baietz erantzun du.

Guztiek ezin dute nahi duten dirua atera, txartelek euren berezitasunetara egokitutako traba bat dutelako, baina, hala ere, gai horren gaineko kontrol handiagoa dutela sumatzen dute.



## 5. galdera: Galdera irekia zen eta euren sentimendua aztertu nahi genuen. Zure ustez, zer alderditan hobetu da zure bizitza kreditu-txartela duzuenetik?

Jarraian erantzun batzuk hitzez hitz jasotzen ditugu: “Askatasun handiagoa izatean. Ondo sentitzen naiz nire diruaren ardura hartuz.”

“Dirua ematen zidatenean murrizketa bat bezala bizi nuen, eta orain beti egin dudana zerbait berreskuratu dudala sentitzen dut. Badakit zer daukadan, badakit zer gastatzen dudana eta neu arduratzen naiz nire arazoaz. Nik neurearen ardura dut “.

“Ona da, bizitzan “normalena” diruaren arduradun izatea delako. Horrek ez nau hain desberdin sentiarazten. “Normaltasunera” hurbildu nahi badugu, arduratsuak izan behar dugu “

“Orain nirea neurea dela iruditzen zait”.

“Ondo sentitzen naiz nire dirua kudeatzen ikasi dudala frogatzen dudalako” “Ondo mantentzen laguntzen dit”.

Zentrotik, gure egoiliarren iritziak entzun ondoren, uste dugu neurri berri honek, oraindik miaketa- eta proba-fasean dagoena, egoiliarrentzako gaitasun-bizipen handiagoa dakarrela, ahaldunduta sentitzen direla eta, beraz, euren buruaren arduradun. Autonomia beti dago norberaren ardura izatearekin lotuta.